

**GazteKLUBA IRTEERAK** Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirol Sailak antolatutako jarduera-eskaintza zabala da, 14-18 urteko (2000 – 2004 jaiotakoak) Bilboko gazteei zuzenduta eta urriaren 12tik urriaren 13ra egiten dena.

Jarraian jasoko diren arauak eskaintza honen irteeretan izena emateko prozesuari dagokie.

Izena on-line emango da APP TYPEFORM plataformaren bidez eta haren esteka Bilbao Gazte webgunean egongo da eskuragarri.

\*Ezinbestekoa da Bilbon erroldatuta egotea. Gazteria eta Kirol Sailak egiaztatuko du datu hori.

1. Lekuen esleipena heldu ahalako ordenaren arabera egingo da, lekuak bete arte.
2. Eskaera batean, lagun batek, gehienez, beste bi lagun en izenak aipatu ditzake, berarekin batera jardueran parte har dezaten. Eskaera horretan adierazitako bi lagun horiek ados egon behar dute.
3. Izena emandakoek gehienez 2 eguneko epea izango dute izen-ematearen kostua ordaintzeko. Horrela egin ezean, lekua galduko dute.
4. Izena emandakoak aparteko beharrianak edukiz gero, ezinbestean txosten medikoak aurkeztu behar dira.
5. Lekuren bat hutsik egonez gero, itxaron-zerrendaz baliatuko gara horiek betetzeko.
6. Matrikularen dirua jarduera hasi aurretik behar bezala justifikatutako osasun arloko arrazoiengatik bakarrik itzuliko da.
7. Jardueretan izena emateko eta parte hartzeko, honako arauak eta ekintza bakoitzarenak onartu behar dira. Parte-hartzaileek jokabide egokia eduki behar izango dute eta jardueraren arduradunek emandako azalpenak jarraitu. Norbaitek gizalegez jokatu ezean, jardueratik kanporatua izan daiteke eta #GazteKLUBA programaren hurrengo ekintzetan parte hartzeko debekua ezarri ahal izango diote.
8. Jarduera-programaren datak, orduak edo lekuak aldatu daitezke, antolakuntza-kontuengatik edo eguraldiarengatik.
9. Arauak ezartzean sortu litezkeen zalantzak Gazteria eta Kirol Sailak ebatziko ditu.

-----